
ELKARBANATUZ
ELKARTEA

2019KO EKITALDIA

URTEKO TXOSTENA 2019

 elkarbanatuz

ELKARBANATUZ
ELKARTEA

2019KO EKITALDIA

URTEKO TXOSTENA 2019

 **elkarbanatuz**

BULEGOAK:

Madariaga etorbidea 69,
48014 Bilbo

Madalena Jauregiberri, 2-5. solairua
20080 Donostia

Tel.: 944 757 643- Faxe: 944 750 151-
info@elkarbanatuz.org
www.elkarbanatuz.org

ZENTROAK:

BAIKABA:

Madariaga etorbidea, 69 etxabea, 48014 Bilbo.
Tel. 94 447 44 99- baikaba@elkarbanatuz.org

HAZTEN:

BILBO: Madariaga etorbidea 1, 48014 Bilbo.
Tel. 94 642 64 47-

hazten@elkarbanatuz.org IRUN:

Elizatxo hiribidea 14-16, 20303 Irun

Tel. 843 63 08 06-

haztenirun@elkarbanatuz.org

HIRANKA I:

Blas de Otero 39 (Sarrera Arenatza Kobaren
kaletik), 48014 Bilbo.

Tel. 94 476 41 36- vidautonoma@elkarbanatuz.org

HIRANKA II:

Madariaga etorbidea 81, 48014 Bilbo.

Tel. 94 476 41 36- ocupacional@elkarbanatuz.org

EGOITZA- BALIABIDEAK

Bidean (Bilbo)
Ganeko (Bilbo)
Ondoan (Bilbo)
Garamendi (Bilbo)
San Adrian (Bilbo)

<i>Eskerrak</i>	2
<i>Aurkezpena</i>	3
<i>Nor gara</i>	4
LAN- ETA LANBIDE-HEZIKETAREN ARLOA	6
<i>Zerbitzu okupazionala</i>	
<i>Laneko bitartekotza- eta orientazio-zerbitzua</i>	
GIZARTERATZE-ARLOA	8
<i>Bizitza autonomoan laguntzeko zerbitzua</i>	
<i>Zerbitzu Psikosoziala</i>	
HAURTZAROAREN, FAMILIAREN ETA OINARRIZKO LAGUNTZAREN ARLOA	
<i>Haurtzaro eta Familia Zerbitzua</i>	11
<i>Harreraren eta jarraipen sozioadministratiboaren zerbitzua</i>	
<i>Laguntzak kudeatzeko zerbitzua</i>	
<i>Gizarte-eragineko programa</i>	
<i>Nazioarteko lankidetzak</i>	
<i>Gizarte-partaidetzak</i>	13
JARRAIPEN EKONOMIKOAREN ETA ADMINISTRATIBOAREN ARLOA	14
<i>Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua</i>	
<i>Administrazioaren arloa</i>	
<i>Kalitate-programa</i>	16
<i>Urteko kontuak</i>	
<i>Lankidetzak-sareak</i>	18
<i>Komunikatzeko bideak</i>	19
<i>Lagundu</i>	20

ESKERRAK

Esker ona adierazi nahi diegu 2019. urtean lagundu diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei:

LA SALLE SAREA



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Kristau Eskoletako Anaiak FSC

ERAKUNDE PUBLIKOAK



Arrigorriagako Udala



Bilboko Udala
Gizarte Kintza Saila



Gizarte Politiketako Sailburuordetza



Euskal Enplegu Zerbitzua
Lanbide

Eusko Jaurlaritza.
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila



Bizkaiko Foru Aldundia
Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasun Saila



Europako Gizarte Funtza

ERAKUNDE PRIBATUAK



Erlijosoen Espainiako Konferentzia



Carmen Gandarias fundazioa



Víctor Tapia- Dolores Sainz fundazioa



Obra Social "la Caixa"

Obra Social La Caixa



Caixa Proinfancia Programa



Incorpora Prestakuntza Guneak



Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa

ALDAKETEN ETA PROIEKTU BERRIEN URTEA

2019ko alderdi esanguratsuenak bildu ditugu hurrengo orrialdeetan. Gure Misioa betetzeko egiten dugun ahalegin guztia islatzen du, pertsona kalteberenen beharrei erantzutetik hasi eta ekarpen handiena egin dezakegun gizarte-eraldaketako ekintzetan aktiboki parte hartzearekin buka.

Egoera sozialarekin bat etorritz, urtero saiatzeko gara identifikatzen ditugun eta lan egiten dugun pertsonen eta kolektiboek helarazten dizkiguten beharretara egokitzen. Pertsonekin egin ohi ditugun esku-hartzeetan nahiz beste erakunde batzuekin partekatzen ditugun sareko lan-espazioetan gauzatzen da entzute aktibo hori. Profesional eta erakunde gisa hazten eta hobetzen lagunduko diguten prestakuntza espezifikoa ere bilatzen eta planifikatzen ditugu.

Bereziki garrantzitsua izan da aurtengo urtea, Irunen lan-prestakuntzako zerbitzua ematen hasi baikara. Aspalditik genbiltzan Gipuzkoan lan egiteko aukerak aztertzen, eta, azkenean, etapa berri bat hasi dugu eta espero dugu jasagarria izatea eta denborekin handitzen joatea. Lan-arloan ez ezik, beste arlo batzuetan ere eskaini nahi dugu zerbitzua eta horiek aztertzen ari gara identifikatutako beharrei erantzuteko.

Premia bereziko egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen jarraitzen dugu, bizi autonomia izan dezaten laguntzeko zerbitzuen, arreta psikosozialaren eta okupazionalaren bidez. Hala, sendotzen ari da gizarteratze-prozesuak bultzatzeko lan koordinatua, beharrei ikuspegi komunitik begiratuta erantzuten espezializatutako hainbat talderekin.

Era berean, haurrekin eta familiarekin egindako lanak etengabeko koordinazioa eskatzen du, bai erakundearen barruan, bai kanpoan. Familien eta haurren egunerokotasunean parte hartzen duten eragileekin etengabeko elkarrizketa izatea ezinbestekoa da gizarte- eta hezkuntza-laguntza egokia emateko.

Eskerrik asko zuen bokazioarekin mundu bidezkoagoa eta solidarioa lortzeko borrokan jarraitzen duzuen guztioi.

Zuzendaritza Batzordea eta Zuzendaritza Taldea
2019ko abenduaren 31

NOR GARA

Elkarbanatuz irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta La Salleko Ekintzen Sareko partaide da. Sare horrek, batez ere, hezkuntzaren eta esku-hartze sozialaren arloan egiten du lan.

Onura Publikoko izendapena jaso du, eta partaidetza eta gizarte-aldaketa bultzatzen ditu.

Gizarte-oinarri sendoa dugu; izan ere 75 bazkide eta laguntzaile ditugu.

100 lagunek egin dute lan gurekin: 43 lagun talde profesionalekoak dira (35 emakume eta 8 gizon), eta 57, berriz, boluntarioak (29 emakume eta 28 gizon).



ORGANIGRAMA

- ♦ Zuzendaritza
 - Jarraipen ekonomikoaren eta administrazioaren arloa
 - Lan- eta lanbide-heziketaren arloa
 - Egoitzetako esku-hartzearen arloa/
 - Gizarteratzea
 - Hautzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloa

ZUZENDARITZA BATZORDEA:

- Fernando Casas Gallego (presidentea)
- Itziar Muniozguren Colindres (presidenteordea)
- Asier Fernández Plaza (idazkaria)
- Gonzalo Martínez Bea (diruzaina)
- Leixuri Joana Rojo Melón
- (batzordekidea) Iker Izaola Viana
- (batzordekidea)
- Joseba Iñaki Aranguren Pascual (batzordekidea)

ZUZENDARITZA TALDEA:

- Borja Doval (zuzendaria)
- Maria Carriedo (Egoitzetako esku-hartzearen arloaren arduraduna)
- Itxaso Bilbao (Hautzaroaren, familiaren eta oinarrizko laguntzaren arloaren arduraduna)
- Iñigo Erice (Lan- eta lanbide-heziketaren arloaren arduraduna)
- Marta Isla (Jarraipen ekonomikoaren eta administrazioaren arloaren arduraduna)
- David Bernabé Pérez (Hazten lanerako prestakuntza-zerbitzuen koordinatzailea)



ETORKIZUNAREN DEFINIZIOA:

♦ MISIOA

Elkarbanatuz elkarteak, La Salleren hezkuntza-misioarekin bat, egoera ahulenean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza ematen egiten du lan, eta gizarte justuagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko, parte-hartzearen eta gizarte-eraginaren bidez.

♦ IKUSPEGIA

Gizartean eta La Salleren misioan erreferentzia izango den erakundea izatea, gizartea aldatzeko eta egoera ahulenean daudenei gizarte- eta hezkuntza-laguntza emateko lanean.

♦ BALIOAK

- Identitate lasalletarra
- Elkartasuna
- Senidetasuna
- Lankidetzaz
- Eraginkortasuna
- Erantzunkidetasuna
- Berrikuntza
- Gardentasuna

2019. URTEAN:

- ♦ **1.400 lagunek** parte hartu dute gure programetan.
- ♦ **600 lagunek** baino gehiagok parte hartu dute zuzeneko laguntza-prozesuetan.
- ♦ **700 lagunek** baino gehiagok parte hartu dute sentsibilizazio-ekintzetan.
- ♦ Nazioarteko lankidetzaz programaren bidez, arreta-prozesuetan parte hartu duten **100 laguni** baino gehiagori lagundu diegu.
- ♦ Gainera, **700 lagunek** baino gehiagok jarraitzen digute sare sozialen bidez.



LAN- ETA LANBIDE- HEZIKETAREN ARLOA

2019an jauzi handia egin dugu arlo honetan, gure Hazten Zentroa ireki baitugu Irunen (Gipuzkoa) eta Lanbideek homologazioa eman digu enplegurako prestakuntza emateko. Dagoeneko Zentro Akreditatua gara Gizarte Zerbitzuen eta Komunitatearen eremuan 1. mailako Profesionaltasun Ziurtagiriak emateko, eta Zentro Inskribatua gara eremu berean eta Ostatalekuen eremuan Profesionaltasun Ziurtagirien aurreko prestakuntzetan, baita Lan-arloko Gaitasunei eta Trebetasunei buruzko beste prestakuntza batzuetan ere.

Horrek guztiak aukera eman digu gure arloari lotutako zerbitzu guztien lana errepikatzeko, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta enplegarritasuna hobetzeko Gipuzkoan ere.



- Praktikak egin dituzten 60
- lagunetatik, 44k lortu dute lana. 139 laguni eman zaie arreta bitartekaritza- eta orientazio-zerbitzuan.
- 4.520 prestakuntza-ordu. % 125 aurreko urtearekiko.
- 58 lan-eskaintza kudeatu dira, 2018an baino 3 gehiago, eta 55 kontratu lortu dira, aurreko urtean baino 6 gehiago.
- 400 lagun inguruk hartu dute parte Hazten zerbitzuaren prestakuntzetan, aurreko urtean halako bi baino gehiago.
- Jarduera hasi da Hazten enplegurako prestakuntza-zentro berrian Irunen, bi lantalderekin, proiektu berezien deialdiaren barruan.
- Proiektu Bereziak izenekoak finkatzen ari dira Hazten Bilbon, 4 lantalde onartu baitira. Lanean bilakaera izan da
- gaitasun pertsonaletan eta estimulazio kognitiboan.

Hazten, Lanerako Prestakuntza Zentroa

Gure zentroetan (Bilbon eta Irunen) artatzen ditugun pertsonen ahalduntzea hobetzeko, trebakuntza profesionala, eta trebetasun eta gaitasun soziopertsonalak eskaintzen ditugu enplegua bilatzeari eta lortzeari begira.

Gainera, Lantokiko Prestakuntzarekin osatzen dugu, ikasitako guztia lan-ingurunean praktikan jartzeko tresna gisa, eta balizko kontratazioak egin aurreko urrats gisa.

Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren, La Caixa Gizarte Ekintzako Incorpora Programaren eta CONFERen laguntza eta lankidetzatza ditugu.



Zerbitzu okupazionala

Arreta integrala eman da Zerbitzuak artatutako kasuetan, Hiranka Programa osatzen duten beste 3 zerbitzuen esku-hartzearen eta laguntzaren osagarritasunari esker.

Estimulazio kognitiborako eta gaitasun pertsonalak lantzeko programa espezifikoak egin dira, horiek izan baitira arreta jaso duten pertsona gehienek gabezia-arlo komunak.

Helburua da autonomia funtzional handiagoa ematea gizarteratzeko prozesuan lagundu diegun pertsonari.



Aurkibide, Laneko bitartekotza- eta orientazio-zerbitzua

Lana aurkitzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonari laguntzen diegu. Pertsona horiei laguntzen diegu enplegua aurkitzeko aukerak hobetzen, bakoitzarekin ibilbide espezifikoak diseinatuz, zein lan-arlo sustatu behar diren ikusiz eta etapak betetzen joateko aukera emango dieten helburu zehatzak finkatuz, azken helburua, hau da, laneratzea lortu arte.

Programan parte hartzen duten pertsonarekin egindako lanaren intentsitateak, banakako eta taldeko orientabideen eta tutoretzen bidez, gaitasun eta trebetasun profesionalak eta pertsonalak hobeto ezagutzea ahalbidetzen du.

Enpresa-sarearekin lotura estua dugu enpresekin dugun harremanari esker, eta, horregatik, zer premia dituzten badakigu eta premia horiei erantzun diezaikegu behar dituzten profiletara ondo egokitzen diren hautagaiekin.



GIZARTERATZE -ARLOA

2019an, 2018an izandako aldaketak finkatu ditu Gizarteratze-arloak, eta bi zerbitzutatik erantzun die pertsonen beharrei:

- Bizitza autonomoa izan dezaten laguntzea.
- Arreta psikosoziala.

Pertsoneri lagundu diegu beren gizarteratze-prozesuetan, aukera-berdintasuna sustatuz eta beren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten baliabide pertsonalak eta gizarte-trebetasunak garatzen lagunduz; lotura afektibotik, partaidetzatik eta laguntza indibidualizatutik abiatuta.



- 28 lagun artatu ditugu Bizitza autonomorako laguntza zerbitzuan, haietatik 5 emakumeak.
- 25 lagun artatu ditugu 16 egoitza-planetan.
- 11 lagunek amaitu dituzte beren prozesuak, zituzten helburuak erabat edo partzialki beteta.
- 8 lagunek amaitu dituzte beren prozesu psikosozialak, helburuen % 75 beteta.
- Osasun mentalaren alorrean behar espezifikoak dituzten, edo/eta arazo emozionalak eta konduktualak dituzten 33 laguni eman diegu arreta; haietatik 5 emakumeak.
- Erabiltzaileek beren prozesuetan eta zerbitzuetan parte har dezaten sustatu dugu. 37 bitartekaritza-ekintza esparru komunitarioan.
- 19 bitartekaritza familietan.
- Koordinazio ezin hobea beste erakunde batzuekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta prestakuntza eta birziklatze profesionala arretaren eta esku-hartzearen kalitatea hobetzeko.

Bizitza autonomorako laguntza-zerbitzua.

Bizitza autonomorako laguntza-zerbitzua indartzeko urtea izan da 2019a. Hiranka Programako gainerako zerbitzuekin diziplina anitzeko lana eginez, pertsoneri lagundu zaie autonomia pertsonaleko prozesuetan eta esparru komunitarioan parte hartzen.

Banakako esku-hartze hezitzailea egin dugu, pertsona bakoitzaren beharretara egokituta, eguneroko kudeaketan, harremanetan eta ingurunean moldatzeko behar diren trebetasunak sustatuz.

Zerbitzuaren osagarri diren 16 egoitza-plazak bete ditugu, eta etxe partikularretan dauden pertsonak ere artatu ditugu.

Jarduera-protokoloak, lan-tresnak, metodologia berriak eta jardunbide egokiak hobetzeko eta sistematizatzeko egindako ahalegina azpimarratu nahi dugu. Lan horien helburua izan da gure esku-hartzearen kalitatea eta pertsonak gizarteratzeko prozesuak hobetzea.



Zerbitzu psikosoziala

Laguntza emozionala, familia-bitartekaritza eta inguruarekiko bitartekaritza eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsoneri laguntzea dira Zerbitzu psikosozialaren oinarriak.

Lan handia egin da diagnostikorako tresnak eta esku hartzeko teknikak aztertzeko eta espezializatzeko, zerbitzuaren kalitatea hobetzen jarraitu ahal izateko.

Erabiltzailearen eta talde profesionalaren arteko loturatik abiatuta, pertsoneri lagundu zaie zailtasun emozional eta konduktualean, bai eta beren egoera pertsonala eta pertsonen arteko eta inguruarekiko harremanak zailtzen dituzten osasun mentaleko arazoetan ere.

Honako hauek dira zerbitzu psikosozialean banaka eta talde-dinamiketan landu diren alderdietako batzuk: kudeaketa emozionaleko lana, agindutako tratamenduekiko atxikimendua, bulkadak kontrolatzeko teknikak, gatazkak konpontzea, autoezagutza eta autoestimua, eta harremanetarako eta komunikaziorako trebetasunak. Horiek, gainerako zerbitzuekin batera, lagundu egin dute erabiltzaileen egoera soziopertsonala garatzen eta hobetzen.



HAURTZAROAREN, FAMILIAREN ETA OINARRIZKO LAGUNTZAREN ARLOA

Eboluzionatzen eta aldatzen ari den gizarte baten parte gara, eta, beraz, guk ere eboluzionatu egiten dugu eta aldatu egiten gara, eta beharrian berriei erantzuten diegu, metodologia berriak aztertzen ditugu eta espazio berriak bilatzen ditugu, pertsonak beren prozesuetan parte har dezaten sustatzeko.

Hortik abiatuta, eta autonomia eta gizarte-kontzientzia sustatuz, zerbitzuak eta programak diseinatu eta eguneratzen ditugu, pertsonari eta erakundearen Misionari erantzuna emateko.

Proposamen bakoitzean, pertsona eta kolektibo kalteberenen eskubideak defendatzea dugu ardatz.

- 70 neska, mutil eta nerabek (28 neskek eta 42 mutilek) hartu dute parte Aste Santuko, Eguberrietako eta udako hiri-kolonietan.
- 56 Neska, mutil eta nerabek (24 neskek eta 32 mutilek) hartu dute parte eskola-laguntzako eta zentro irekiko jardueretan.
- 57 lagunek (29 emakumek eta 28 gizonak) egin dituzte boluntario-ekintzak elkartean.
- EAEko ikastetxeetako 551 ikaslek (272 neskek eta 279 mutilek) hartu dute parte sentsibilizazio-jardueretan migrazio- eta gizarteratze-prozesuen inguruan.
- 378 erabiltzailek jaso dituzte laguntzak. Erakundean 110 lagun berriri egin zaie abegi (90 emakumeri eta 20 gizoni). 718 jarraipen egin zaizkie erabiltzaileei (255 gizoni eta 463 emakumeri) kontu sozioadministratiboaren inguruan informatzeko, orientatzeko eta laguntzeko. 102 adin txikikok (Lehen Hezkuntzako 36 neskek eta 46 mutilek, eta Bigarren hezkuntzako 13 neskek eta 7 mutilek) 63 familiakoak, parte hartu dute Lerchundi Etxean (Tanger)



Baikaba, Haurtzaro eta Familia zerbitzua

Banakako arreta-planen bidez, kalteberatasun-egoeran dauden familietako haurren eta nerabeen garapen osasungarria bultzatzen dugu. Zerbitzuak berak proposatutako jarduerak egiten ditugu, eta koordinazio estua mantentzen dugu haien garapenean inplikaturako gainerako eragileekin.

Aurten lan handiagoa egin dugu familiekin, helduen inplikazioa bultzatuz, eta seme-alabak zaintzeko eta hezteko familia-estrategiak hobetzen lagundu dugu.

Hori guztia "La Caixa" Gizarte Ekintzaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Victor Tapia fundazioaren eta Carmen Gandarias fundazioaren laguntzarekin.



Abegi-zerbitzua eta jarraipen sozioadministratiboa

Taldea arduratzen da erabiltzaile berriei harrera egiteaz, haien egoera pertsonalari buruzko informazioa biltzen du eta banakako diagnostiko soziala egiten du.

Izapide sozioadministratiboak kudeatzeaz eta haietan laguntzeaz arduratzen da, bai aurretik identifikatutakoetan, bai bere gizarte eta hezkuntza aldi hainbat zerbitzutan sortzen direnetan.




Laguntzak kudeatzeko zerbitzua

Hainbat laguntza kudeatzen ditugu gure zerbitzuetan parte hartzen duten eta egoera zaugarrian egoteagatik behar handiena duten familientzako.

Horrela, lan-planetan ezarritako helburuak betetzen laguntzen dugu, premia handiko egoerak arinduz.

Era berean, erabiltzaileei aholkularitza eta laguntza ematen diegu izapide sozioadministratiboetan, beren autonomia ekonomikoa bultzatuko duten laguntzak eskuratzeko.



Gizarte-eragineko programa

Gizartea sentsibilizatzeko, mobilizatzeko eta salatzekeo ekintzak egiten ditugu, bai eta ikastetxeetako ikasleei zuzendutako jarduerak ere, gizarteratzea, migrazioa eta giza eskubidek bezalako gaien inguruan, herritartasun kritikoa eta eraldatzailea sustatzeko asmoz. Jarduera horiek sare sozialetan jarrai ditzakezue (Twitter eta Facebook).

Aurreko urteetan bezala, migrazio-prozesuen protagonista izan diren pertsonen laguntza izan dugu topaketa batzuetan.

Aurten, berrikuntza gisa, eta Amycos Elkartearen eskuzabaltasunari esker, garapen jasangarrirako helburuekin lotutako eduki eta material berriak sartu ditugu.



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

2019an zehar bukatu genuen "Tangerren bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden familietako haurren eta nerabeen gizarte- eta hezkuntza-garapena eta bizikaltatea hobetzen laguntzeko" proiektuaren IV. fasea, eta V. faseari ekin genion.

Helburu nagusiak honako hauek dira: haurren hezkuntza-maila eta eskola-errendimendua hobetzea, aisiaren eta denbora librearen esparruan gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatzea eta eskolatzeko ekipamendua izatea.

Gainera, emakumeen hazkunde pertsonala eta kolektiboa sustatzen da, elkarri lagunduz eta ahalduntzea bultzatuz, alfabetatzeko prestakuntza-errefortzuari esker, komunikaziorako eta emakumeen eskubideak ezagutzeko eta defendatzeko oinarrizko tresnak ematen baititu.

Bigarren urtez jarraian, haurren sexu-indarkeriaren prebentzioa eta babesa berariaz landu dira Aita Lerchundi Haurrentzako Etxean.

Gai hori hautatu da oso kezagarria delako eta lehentasuna eman behar zaiolako; izan ere, ekintza horiek ondorio handiak izaten dituzte eta hainbat arlotan eragiten diete biktima izan diren haurren eta nerabeen egungo eta etorkizuneko bizitzan. Association Meilleur Avenir por Nos Enfants (AMANE) erakundearen laguntza du, Aida, Ayuda, Intercambio y Desarrollo GGKEaren tokiko bazkidea.

Gainera, talde psikohezitzaileak tailerrak prestatu ditu ikasteko motibazioari, aukeraberdintasunari, higieneari, entzuteari, denboraren kudeaketari eta estresari... buruz, eta, bereziki, bigarren hezkuntzako ikasleekin, orientazio profesionaleko eta komunikazio-tekniketako tailerrak antolatzen dira.

Talde-lan guztiaz gain, banakako txostenak egiten dira, ikastetxeko hezkuntza-taldeak eta koordinatzaile pedagogikoak elkarrekin prestatuak. Txosten horietan adingabeen balorazioa eta bilakaera jasotzen dira, bai gaitasun kognitiboei eta heldutasun- eta adimen-garapenari dagokienez, bai oinarrizko gaitasunak eta eskola-errendimendua eskuratzeari, ikasteko ohiturei eta ikasteko autonomiari dagokienez, etab. Aldizka bisitak egiten dira ikastetxeekin koordinatzeko.

Banakako saio terapeutikoak ere egiten dira.



GIZARTE-PARTAIDETZA

PARTE-HARTZEA JARDUNALDIETAN ETA PRESTAKUNTZAN

- Feminismoari, indarkeria matxistei eta esku-hartze sozialari buruzko I. biltzarra.
 - La Salle prestakuntza: La Salle Eskolaren erronkak XXI. Mendean - Ikaskuntza Testuinguru Berria (ITB).
 - Bigarren Aukerako Eskolen IV. Topaketa Nazionala, Madril. Bigarren Aukerako Eskolen Espainiako Elkarteak eta Tomillo Fundazioak antolatua.
 - BEAZ Gizarte Berrikuntzako Topaketa, Bilbo. Bizkaiko Foru Aldundia.
 - Merkalan, Enplegu eta Prestakuntza Azoka, Donostia.
 - Lanbide Gizarte Berrikuntzako IV. Foroa, Valentzia.
 - Jovesolides Pedagogia Berriak: proiektuetan oinarritutako ikaskuntza.
- Sortu eta Hazi: Aldaketarako eta partaidetza sozialerako hezkuntzaren kongresua. Bilbo. Jolas eta Ekin.
- Jardunaldiak: "Egiturazko indarkeriaren eragina etxerik gabeko emakumeengan". Bilbo. Lagun Artean-ek antolatua.
- Berdintasunari, ahalduntzeari eta enpleguari buruzko jardunaldia, Integrando Fundazioak antolatua, Sestaoko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean.
- Boluntariotza kultura eraldatzailerantz. Elkarbanatuz elkarteak antolatua.
- Euskadiko bizitegi-bazterketari buruzko IV. jardunaldiak. Donostia. Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarteratzeko bigarren mailako arretako Bizkaiko Gizarte Zerbitzuetako profesionalen oinarrizko prestakuntza.
 - Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguneko jardueran parte hartzea. EAPN. Boluntarioen eguneko topaketa. Bolunta.

PARTE-HARTZE KOMUNITARIOA ETA SAREKO LANTALDEAK


- Ekain, Enplegurako prestakuntza taldea.
- REAS, Gizarte-auditoria taldea.
- BesteBi: motorra, batzarrak eta elkarretaratzeak.
- Bizkaiko Psikologoaren Elkargo Ofizialeko Gizartekintza Batzordea.
- Deustuko Unibertsitateko Esku-hartze Sozialeko Masterraren Irakaskuntza Komunitatea.
- EAPNren Pardaidetza batzordea.
- EAPNren DBE batzordea.
- EAPNren etxebizitza eta etxegabetasun taldea.
- Etxerik gabeko pertsonen batzordea eta Haurren batzordea. Gizarte-zerbitzuen udal-kontseilua. (Gizardatzen izenean).
- EAPNko Emakumea batzordea.
- EAPNko Haurtzaroa eta familia batzordea. Bolunta boluntarioen foroa.

BOLUNTARIOAK

Elkarbanatuzentzat funtsezkoa da boluntarioek erakundeko proiektuetan parte hartzea, elkartasunaren adierazle moduan eta gizartean parte hartzeko eredu moduan, komunitatearekin lotuta lan eginez.

Premisa horiekin egin zen "Boluntariotza kultura eraldatzailerantz: zereginetik gizarte-aldaketara" prestakuntza-jardunaldia, Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua eta Boluntak dinamizatu.

Urte osoan zehar, boluntarioek parte hartu dute hezkuntza-errefortzuko, aisialdiko eta denbora libreko jardueretan, hiri-kolonietan, helduen alfabetatzean, gizarte-eraginean, itzulpengintzan eta administrazio-lanetan. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei emandako laguntzagatik, motibazioagatik eta konpromisoagatik. Gainera, La Salle-Bilbao eta Fátima-Esclavas del Sagrado Corazón ikastetxeekin elkarlanean dihardugu, batxilergoko ikasleek zerbitzu solidarioko esperientziak gara ditzaten espazioak eskainiz.



JARRAIPEN EKONOMIKOAREN ETA ADMINISTRAZIOA REN ARLOA

Jarraipen ekonomikoaren zerbitzua

Kudeaketa-estilo etiko eta arduratsuaren alde egiten dugu lan, bai eta egoera ekonomiko eta finantzario orekatuaren alde ere.


Administrazio-zerbitzua

Gure administrazio-kudeaketari esker, eraginkortasunez antolatzen ditugu baliabide materialak, bai eta elkartearen kanpoko zerbitzuen baliabideak ere, elkartearen misioarekin bat datozenak.

Halaber, administrazio-zerbitzuak harreman eraginkorra, horizontala eta lankidetzakoa du hornitzaileekin.

Kalitate-programa

Arloa orobat arduratzen da elkartearen kalitate-programa kudeatzeaz. 2019an, erakundearen kudeaketa-zikloa homologatutako kalitate-estandarren arabera finkatzen jarraitu dugu, baina gure misioari eta nortasun-ezaugarriei leial izateko konpromisoarekin.



elkarbanatuz

Kostu errealaren finantzaketa-iturriak:

Jarraian, 2019an izan diren finantzaketa-iturriak eta "kostu errealaren" ehunekoa zehazten dira:




Kontu-ikuskapenak:

Elkarbanatuz elkarteak kontu-ikuskapenak egiten ditu aldiari-aldiari zenbait alderdi ebaluatzeko; hain zuzen ere, gizarte eraginarekin, kudeaketa ekonomikoarekin edo elkartearen kudeaketan balio jakin batzuk integratzearekin lotutako alderdiak ebaluatzeko.

Ebaluazio-mekanismo horiek bide ematen dute etengabe hobetzeko prozesuak garatzeko eta ezartzeko, eta, horretaz gain, tresna apartak dira elkarte-proiektua jasangarria eta sendoa dela bermatzeko.

Kontu-ikuskapen ekonomikoa: A-Zeta aholkulariek urteko kontuen ikuskapena egin dute, eta egiaztatu dute kontu horiek zehatz-mehatz adierazten dutela elkartearen finantza-egoera.



Kontu-ikuskapen soziala: Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) eginiko kontu-ikuskapen sozialari esker, 2019an, gure elkartearen eraginkortasun soziala eta helburuekiko jokabide etikoa ebaluatu ditugu, gizarteari eta elkartasunari begira lortutako emaitza hobetzeko asmoz.

Etika Batzordearen txostena: Elkarbanatuz elkarteko Etika Batzordeak txosten bat egiten du urtero, eta txosten horretan ebaluatzen du Etika Kodea zenbateraino sartzen den elkartean.



URTEKO KONTUAK

Hona hemen elkartearen 2019ko ekitaldiko urteko kontuak, indarrean dauden kontabilitate-printzipio eta -arauetan oinarrituta eginak. Bilakaera hobeto ulertzeko, 2018ko eta 2019ko ekitaldietako zifrak erakutsiko ditugu.

EGOERA-BALANTZEA 2019ko abenduaren 31n (eurotan emana)

AKTIBOA	2019	2018
A) AKTIBO EZ ARRUNTA	339.746,46	342.575,13
I. IBILGETU UKIEZINA	0,00	0,00
Aplikazio informatikoak	0,00	0,00
Ibilgetu ukiezinarean amortizazio metatua	0,00	0,00
III. IBILGETU MATERIALA	320.991,66	325.020,33
Eraikuntzak	218.811,89	218.811,89
Makinenak	8.667,25	8.667,25
Bestelako instalazioak	12.497,60	12.497,60
Altzariak	86.382,47	76.186,59
Informazio-prozesuetarako ekipoak	57.568,04	52.619,24
Beste ibilgetu material batzuk	2.598,77	2.328,79
Eraikinetako inbertsioak	151.693,53	137.498,37
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua	-217.227,89	-183.589,40
VI. EPE LUZERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	18.754,80	17.554,80
Epe luzerako finantza-inbertsioak	6.438,00	6.438,00
Epe luzerako fidantzak	12.316,80	11.116,80
B) AKTIBO ARRUNTA	234.843,24	301.908,28
III. JARDUERAREN ERABILTZAILAK ETA ZORDUNAK	23.710,84	21.011,91
Jardueraren erabiltzailak	23.710,84	21.011,91
IV. MERKATARITZA-ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE	176.950,60	252.610,33
Administrazio Publikoak	176.950,60	252.610,33
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	2.131,47	1.923,96
Aurrez ordaindutako gastuak	2.131,47	1.923,96
VIII. EFEKTIBOIA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	32.050,33	26.362,08
Kutxa	3.111,24	3.022,28
Bankuak eta Kreditu Erakundeak	28.939,09	23.339,80
AKTIBOA, GUZTIRA	574.589,70	644.483,41

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2019	2018
A) ONDARE GARBIA	195.204,47	150.736,10
A-1) FUNTS PROPIOAK	193.942,87	149.434,66
II. ERRESERBAK	3.850,00	4.240,00
Borondatezko erreserbak	3.850,00	4.240,00
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINAK	145.194,66	143.818,96
Soberakina	145.194,66	143.818,96
IV. EKITALDIAREN SOBERAKINA	44.898,21	1.375,70
Ekitaldiaren emaitza	44.898,21	1.375,70
A-2) DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	1.261,60	1.301,44
Bestelako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.261,60	1.301,44
B) PASIBO EZ ARRUNTA	139.063,62	185.545,06
III. EPE LUZERAKO ZORRAK	139.063,62	185.545,06
1. Kreditu-erakundeetako zorrak	134.011,11	151.511,10
3. Epe luzerako beste zor batzuk	5.052,51	34.033,96
C) PASIBO ARRUNTA	240.321,61	308.202,25
III. EPE LABURRERAKO ZORRAK	123.799,99	217.325,93
1. Kreditu-erakundeetako zorrak	123.799,99	157.325,93
3. Epe luzerako beste zor batzuk	0,00	60.000,00
VI. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINTEZKO BESTE KONTU	72.648,64	69.447,75
1. Homitzaileak	14.327,24	6.602,92
2. Beste hartzekodun batzuk	58.321,40	62.844,83
- Ordaindu gabeko ordainsariak	-4,21	251,20
- Herri-ogasuna, hartzekoduna atxikipenengatik	34.998,22	35.553,37
- Gizarte-segurantzaren erakundeak, hartzekodunak	23.327,39	27.040,26
VII. EPE LABURRERAKO PERIODIFIKATZEAK	43.872,98	21.428,57
Sarrera aurreratuak	43.872,98	21.428,57
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	574.589,70	644.483,41

GALDU-IRABAZIEN KONTUA 2019ko abenduaren 31n (eurotan emana)

	2019	2018
A) EKITALDIAREN SOBERAKINA		
1. Erakundearen diru-sarrerak jarduera propioagatik	654,512.77	554,581.12
a) Bazkide eta afiliatuaren kuotak	74,031.45	47,115.00
b) Erabiltzaileen ekarpenak	0.00	8,984.86
c) Promozioen, babesleen eta lankidetzen diru-sarrerak	11,992.20	15,101.20
d) ekitaldiaren emaitzari egotzitako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	568,489.12	483,380.06
2. Salmentak eta jardueraren beste ohiko diru-sarrera batzuk	960,000.00	929,030.38
3. Laguntzen eta beste batzuen ondoriozko batzuk	(14,708.20)	(14,114.95)
a) Dirulaguntzak	(13,843.00)	(14,114.95)
d) Dirulaguntzak itzultzea	-865.20	
4. Izakinen aldatetak		
5. Elkarrekin bere aktiborako egindako lanak		
6. Hornikuntzak		
7. Jardueraren beste diru-sarrera batzuk	7,557.88	1.03
8. Langile-gastuak	(1,182,472.35)	(1,119,595.10)
9. Jardueraren beste gastu batzuk	(341,287.48)	(319,052.19)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(34,152.13)	(25,650.18)
11. Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaleko dirulaguntzak	39.84	26.56
13. Hondatzea eta ibilgetuak besterentzearen emaitza	-34.81	
A.1) JARDUERA PROPIOAREN SOBERAKINA	49,455.52	5,226.67
14. finantza-sarrerak	0.00	4.10
15. Finantza-gastuak	(4,549.56)	(3,855.07)
17. Kanbio-diferentziak	-7.75	
A.2) FINANTZA-SOBERAKINA	(4,557.31)	(3,855.07)
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA	44,898.21	1,375.70
18. Etekinen gaineko zerga	0.00	0.00
A.4) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN JASOA	0.00	0.00
B) ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOITZAKO SARRERAK ETA GASTUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	323,599.30	240,770.14
2. Jasotako dohaintzak eta legatuak	239,056.00	238,375.38
B.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARERA ETA GASTUENGATIK	562,655.30	479,145.52
C) EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATUAK		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak		
1. Jasotako dirulaguntza publikoak	(323,599.30)	(240,770.14)
2. Jasotako dirulaguntza pribatuak	(239,056.00)	(238,375.38)
C.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ONDARE EKITALDIKO SOBERAKINEAN BERSAILKATZEAGATIK	(562,655.30)	(479,145.52)
D) ONDARE GARBIAREN ALDAKETA ZUZENEAN ONDARE GARBIARI EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK	0.00	0.00
E) IRIZPIDE-ALDAKETENGATIK EGINDAKO DOIKUNTZAK		
F) ERROREENGATIKO DOIKUNTZAK		
H) BESTE ALDAKETA BATZUK		
I) EKITALDIKO ONDARE GARBIAK ALDAKETA EMAITZA GUZTIRA	44,898.21	1,375.70

PROIEKTUEN KOSTU ERREALA ETA GASTU OROKORRAK

Elkarrearen kostu ekonomikoa “kostu erreal” baina txikiagoa da, honako arrazoi hauek direla eta:

- Bi etxebizitzaren lagapena doan, gizarteratzearen arloko proiektuak egiteko.
- Pertsonala, boluntarioek egindako lan eskuzabalaren ondorioz.

Boluntarioei eta diruzkoak ez diren ekarpenei dagozkien kostuen gorakada

- (1) Bi etxeen hileko alokairua, gutxi gorabehera, 1800 € litzateke.
- (2) 110 ordu urtean, gutxi gorabehera, 2.126,30 €-ren balioa dutenak.

SAREAK

Sarean lan egiten dugu, hirugarren sektoreko entitateen elkarlana sustatuz eta helburu komunak lortzeko informazio-fluxu aberasgarria bultzatuz. Horregatik, parte hartzen jarraitzen dugu kide garen sare hauen zuzendaritza-batzordeetan, lantaldeetan, batzarretan, kanpainenetan, ekimenetan eta abarretan:



La Salleko Gizarte eta Hezkuntza Ekintzen Sarea



Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea



Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarte



Danok bizilekua izatearen eta aterpe bakoen aldeko plataforma



Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKEen koordinakundea



Ekain Sarea – Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak



Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea



Proiektuak eta laguntzako etxebizitzak dituzten entitateen federazioa



Zero Pobrezia Kanpaina



Fiare Proiektuari laguntzeko Euskal Sarea



KOMUNIKATZEKO BIDEAK

Webgunea:



www.elkarbanatuz.org



QR kodea

Halaber, egin bat gurekin gizarte-mobilizazioen bidez:

Jarrai iezaguzu sare sozialetan:



Facebook

<http://www.facebook.com/elkarbanatuz>



Twitter

@elkarbanatuz



Aldizkari elektronikoa:



Ohar-taula digitala



Youtube

<http://www.youtube.com/user/elkarbanatuz>



La Salle ARLEP



LAGUNDU

BOLUNTARIOTZA:

Erakundeari laguntzeko modu asko daude, eta horietako bat boluntario izatea da. Gonbit egiten dizugu Elkarbanatuzen boluntario-taldeko kide izan zaitezten eta proiektuetakoren batean parte har dezazun, hezkuntza-ekintzetan, aisialdikoetan, bizikidetzakoetan, laguntza pertsonalekoetan eta abarretan lagunduz.

EGIN EKARPEN BAT:

• **Dohaintza bat:**

Erabiltzeko egoera onean dauden tresnak, ekipoak, altzariak eta bestelako bitartekoak behar ditugu gure jarduerak egiteko. Soberan duzun horixe izan daiteke geuk behar duguna proiekturen bat aurrera eramateko. Hala den jakiteko, mesedez, jo ezazu guregana.

Etxebizitza edo lokal bat erabiltzen uztea:

Ba al duzu hutsik dagoen lokal, bulego edo etxebizitzaren bat? Hura erabiltzen uzten badiguzu, laguntza itzela emango diguzu gure misioa betetzeko, erabiltzaile gehiagori arreta emateko aukera emango baitiguzu.

• **Gure proiektuetarako laguntza ekonomikoa:**

Aldian-aldian ekarpen ekonomikoak egiten dizkigute gure laguntzaileetako batzuek, eta, ekarpen horien bidez, beharreko egonkortasuna ematen diete gure proiektuei. Ekarpen ekonomiko puntualak egitea da gure jarduerari laguntzeko beste aukera bat.

Interesatuak honela jaso dezakete informazioa:

- Gure web-orriaren eta harremanetarako formularioen bidez: www.elkarbanatuz.org
- E-posta erabilia: voluntariado@elkarbanatuz.org y/o colabora@elkarbanatuz.org
- Telefonoz: **94 475 76 43**

